

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

EAJren eskutik ez da
autodeterminazio
eskubiderik ez justizia
sozialik izango!

64 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Borroka da
bide bakarra!**

2. EAJrekin ezin dira lortu autodeterminazio eskubidea eta justizia soziala! Borroka da bide bakarra! • 5. Katalunia: askapen nazionalerako beharrezkoa da burgesiarekin loturak haustea • 7. Irlanda: Protesta egitea ez da krimen bat!
8. Indarkeria matxistaren aurka, zapaltzaileekin itunik ez. Ezinezkoa da emakumearen askatasuna kapitalismoaren aurkako borrokarik gabe • 10. Siriako gerra eta esku hartze inperialista • 14. AEB: Trumpen aurkako erresistentzia zabalduz doa. Kshama Sawant-i elkarritzeta, AEBko Socialist Alternativeko zuzendaria • 18. Kanpora LOMCE, Heziberri eta 3+2a! PPren eta EAJren murrizketen aurka! Hezkuntza publiko, euskaldun, doako eta laikoaren alde!

EAJrekin ezin dira lortu autodeterminazio eskubidea eta justizia soziala! Borroka da bide bakarra!



Ehun egun igaro dira EAJ-PSEren gobernu koaliziotik, eta indioilar bat bezala puztuta dagoen Urkullu aurrekontuak eta hurrengo legegintzaldiko bide estrategikoa aurkeztu ditu Eusko Legebiltzarrean. Ikus daitekeen bezala, ildo nagusiak dira murrizketak, langileen aurkako neurriak eta autodeterminazio eskubidearen ukazioa.

EAJ eta PSEren politika: ezberdintasun soziala handitzeko beste errezeta bat

EAEren aurrekontuaren %10a (1.000 milioi euro) bankuen zorraren interesak eta amortizazioa ordaintzera bideratzen badira ere —enplegu eta politika sozialetara bideratzen dena baino askoz gehiago—, Hego Euskal Herrian 334.000 pertsona gizarte-bazterketa sufritzeko arriskuan daude. Gasteizko parlamentuan aurkeztutako datuen arabera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) 63.317 pertsonak jasoko dute EAEn, aurreko urtean baino %2 gutxiagok. Hau da, Eusko Jaurlaritzak, euskal sozialdemokraziaren eta burgesiaren arteko koalizioak, gizarte bazterketa saihe-

teko errenta hori jasotzeko baldintzak gogortu ditu, hain zuzen ere, argiaren ordainagiria maximo historikotara igo den negu honetan.

Urkullu eta PSEko agintariek “aurrekontu sozialei” buruz hitz egin dezakete egunero, baina errealitatea konkretua da: konpainia elektrikoak irabazi lizunak dituzten bitartean (2016ko lehen bederatzi hilabetetan Iberdrolak 2.041 milioi euro irabazi zituen, eta beste 1.305 milioi Endesak), pobrezia energetikoak 244.000 etxe harrapatu ditu Hego Euskal Herrian. Aurreko urtean, datu judizialen arabera, 1.150 familia kaleratu zituzten, nahiz eta, teoriarik, administrazioa pertsona guztiei aterpea izateko eskubidea bermatzera behartzen duen etxebizitzaren legea onartu. Aurkeztutako aurrekontuen arabera, sail horrek 1.991 milioi euro besterik ez ditu (11.059 milioi euroko BPGaren %1,73a). Gainera, EAEn 24 milioi euro baino ez dira bideratzen etxebizitzaren babestuen alokairura, eta 10 milioi euro bideratzen dira etxebizitzaren erosketara; apurrak besterik ez dira benetako behar sozialekin konparatzen badugu.

Osasun eta hezkuntza publikoa oso hondatuta daude urteetako murrizketa sozialen ondorioz, eta ez da hobekuntzarik egongo. Osasungintzan dauden sindikatuek, berriz ere, salatu dute, prekarietatearen eta saturazioaren ondorioz dagoen osasunaren egoera kezkarria edozein arazo suertatzen denean, txikia izanik ere, azkeneko gripe epidemia adibidez. “Interes pribatuak sustatzera eta gizarte-zerbitzu publikoen merkantilizazio batera bideratzea” bilatzen da, adibidez anbulantzien sektorearekin gertatzen den bezala. Araban greba luzea mantendu dute, bertan soldatzen %20 murriztu baitituzte. EAEn Osakidetza azpikontratatu dituen enpresen puzzle konplexu bat dago; horren adibide dira Urdulizko ospitaleko lentzeria eta sukaldaritza zerbitzuen pribatizazioa eta Lezako garbiketaren pribatizazioa; Eibarko ospitalearen errehabilitazio zerbitzuarekin gauza bera egiteko asmoa dute.

Euskal sektore publikoan 21.400 lanpostu suntsitu dira azken urteetan, eta prekarietatea orokortu da. Gainera, administrazioa langileen herena behin-behineko langileak dira: Osaki-

detzan %34,8, hezkuntzan %38, garbiketa eta sukaldaritza %60, administrazio autonomiko orokorrean %35a eta EITBn %25. Eta hori guztia Hego Euskal Herrian 179.943 langabe daudela kontuan izanda. Gainera, hamarretik seik ez du inolako laguntzarik jasotzen. Ordezkapenak lehen egunetatik egingo balira, lanpostu estruktural guztien eta baja begetatiboen lan eskaintza publikoak egingo balira, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta azpikontratazioa geldiaraziz, 35.000 lanpostu sortu ahalko lirakeke.

Lanpostu finkoa dutenek ere ezin dute murrizketetatik ihes egin. Negoziketara kolektiboa geldirik dago (300.000 langile daude hitzarmenik gabe), eta lan erreformak lan prekarietatea ikaragarri igo du. EAE Estatuko bigarren lurraldea da aldizkako lana dutenen kopuruan, %17,8a hain zuzen ere, eta bi azken urtetan soldatzen euren erosketa ahalmena 700 eurotan murriztu dute bakararra.

Auzi nazionala eta sozialismoaren aldeko borroka. Nortzuk dira gazteen eta langileen aliatuak Euskal Herrian?

Guztiz negargarri da estatuko gobernuaren dagoen PPren antzeko politika atzerakoi hori gobernu aurrerakoi baten politikatzat aurkezte. Gainera, kontuan hartu behar da gobernuaren gutxiengoan egon arren, EAJk bere proposamenak eroso aurrera eramatea nahi dituela, kontzesio minimoekin. PSE gobernuaren delarik, oposizio alderdi guztiek erakutsi dute negoziatzeko nahia. Lehena Alderdi Popularra izan zen. EAJren eta PPren arteko harremana gero eta hobe da. Rajoyren gobernuaren aultasunak ateak ireki dizkio EAJri, eta hau prest agertu da estatuko aurrekontuak babestuz kontrapartidak negoziatzeko, hala nola AHT, kupoa eta transferentziak.

Hori PPK egitea ulargarria da. Oron gainetik, burgesia espainiarren alderdia da, eta euskal burgesiaren lortura handiak ditu; lehena, etekin kapitalisten defentsa. Justifikatu ezin dena da EHBilduk behin eta berriro adierazi izana aurrekontuetan EAJrekin akordioa lortzeko nahia. Gauza jakina da EHBilduko agintari askok EAJrekin ituna sinatzea orientazio estrategikotzat ikusten dutela, ondoren justizia soziala eta autodeterminazio



eskubidea eta independentzia lortzeko. Baina, benetan hala da?

Kaleko borroka utzi eta negoziatio eta itunen bidea hartzeak atzerakada eragin du eskubide sozialekin eta arazo nazionalen. Arnaldo Otegi Garak martxoaren 5ean egin dako elkarrizketan esan zuenez, “EAJ ez dago prozesu subiranistan, besteak beste, dagoen bezala ondo doakiolako bestelako saltsetan sartu gabe”. Testuinguru horretan, Urkullu Kataluniako prozesu subiranistatik aldentu da, eta 2020 jarri du Estatutarekin akordioa lortzeko epemuga erreferendum bidezko kontsulta egiteko. Hori da guztia. Ez autodeterminazio eskubidea, ez antzeko beste ezer.

Historiak erakutsi du eskubide sozialen eta demokratikoen aldeko borroka bat eta bakar dela. Hala ere, borroka hori euskal burgesiaren batera egin nahi izateak porrot egingo du. Aipatu dugun Otegiaren elkarrizketan halaxe dio: “Borroka globaletan bat egin behar dugu. Globalki borroka eginda irabaz dezakegu; bereizirik ezinezkoa da”. Ideia hori zuzena da. Langile klaseak eta gazteriak garaipena lortzeko behar duen baldintza bat da bere etsaiaren, hau da, burgesiaren —zeinahi delarik bere bandera—, aurkako borroken batasuna. Euskal Herrian langileen eta gazteen borrokak lerro nazionaletan bereizteak zaildu eta ahuldu egiten du sistema kapitalistari eta zapalkuntza nazionalari alternatiba eskaintzeko bidea. Klaseko internazionalismoan oinarritzen den programa bat

behar dugu, gure indarrak estatuko espainiarreko, frantziarreko eta mundu osoko langileekin elkartu eta zapalkuntza nazionalen eta autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka bere egingo duena.

Ezker abertzaleko zuzendaritzak ez du batu nahi izan estatuko gainerako lekuetan PPren, PSOEren eta Ciudadanosen aurka gazteek eta langile mugimenduak antolatutako mobilizazioetara. Ikasle Sindikatuak errebalida frankisten, LOMCeren eta 3+2aren aurka antolatu dituen grebetan parte hartzea ukatu du; estatutuan mailan hainbat eragilek, hala nola marea zuriak, marea berdeak eta duintasun martxek antolatutako mobilizazioetan parte hartzeari uko egin dio. Baina langileen borroka garrantzitsuak pizten ari dira, eta mobilizazio horiek, zamaketarien grebak adibidez, babes osoa behar dute eta merezi dute. Are gehiago, beste behin ikusi dugunean nola PPEk eta EAJak batera bozkatu berri duten langileen aurka.

Borroka globalak bateratzeko ideia hori defendatu bai, baina gero praktikara ez eramatea kontraesana da; eta kontraesana da, halaber, eskubide demokratiko nazionalak lortzeko, adibidez autodeterminazio eskubidea lortzeko, EAJrengan oinarritzea.

Arnaldo Otegi dio Kataluniak eta Euskal Herriak motor bakar bat dutela: “auzi nazionala”. Baina ez da hala, bi motor dituzte, auzi nazionala eta auzi soziala, eta biak batera doaz. Biak bereizteak eta bata besteari aurka



jartzeak hondamendira eramaten du. Gazteek eta langileek EAJren aurka eta bizi baldintza duinen alde borroka egin dezaten eragozte, auzi nazionalen gure aliatua direlako, Urkulluri eta euskal kapitalistei bultzada bat ematea da. Otegik dienez, “estatu independente bat lortuko bagenu, guri ez digu ardura hegemonia EAJren esku egotea datozen hogeitun urteetan”. Zintzoki uste dugu euskal langile klaseak eta gazteriak ez duela nahi datozen urteetan EAJk agintzea, urtez urte bere murrizketak eta erasoak jasaten egon ondoren.

Egunero Euskal Herriaren eskubide demokratikoen alde borrokatzen dugunok ez dugu jarraitu nahi erregimen kapitalistan. Euskal herria sozialista nahi dugu, zapalkuntza eta errepresiorik gabekoa, eta justizia soziala eta benetako demokrazia duena! Hori dela eta, bat egiten dugu James Connolly irladarren esanarekin: “Bihar armada ingelesa bidali eta Dublingo gazteluan bandera berdea jartzen baduzue ere, errepublika sozialista antolatzeari ekin ezean, esfortzu guztia alferrikakoa izango da. Ingalaterrak agintzen jarraituko du, kapitalisten bidez, lur-jabeen bidez, herrialde honetan ezarri dituen eraguztietako erakunde komertzialetatik eta norbanakoez, gure amen malkoek eta gure martirien odolek busti duten horiez. Ingalaterrak menderatuko zaituzte hondamendira eramanean arte, baita Askatasunaren kausa traizionatu duzen arren, zuen epainek omenaldi hipokrita egiten badiote ere. Sozialista

lismorik gabeko nazionalismoa kol-darkeria nazionala da”.

Otegiren elkarriketa horretan dio Grezian —teorikoki Europar Batasunaren eta kapitalismoaren markoan independente den herrialdea— Tsiprasek ezin izan zuela Troikak agintutakoa besterik egin, nahiz eta herriarren babesa izan, inork ez zituelako greziarrak mobilizatu. Hori ez da egia. Tsiprasek eta bere gobernuak amore eman zuten Troikaren aurrean, eta langile klasearen eta gazteriarren aldarrikapenak traizionatu zituzten. Ez da egia, inondik ere, Greziarrek ez zuketela Europako langileen babesa izango, baldin eta Europako langileei dei egin izan balie Troikaren erasoei aurre egiteko eta, aldi berean Tsiprasen neurri sozialistak hartu izan balitu banka eta ekonomiaren palanka estrategikoak nazionalizatuz, pertsonak kapital finantzioaren intereseetatik defendatzeko.

Ekintzara pasatu eta masen mobilizazio batua bultzatu behar da

Masen mobilizazioaren beste erasoaldi baterako eta bake sozial faltsu hau apurtzeko baldintzak egon badaude. Jakina, era berean, badira kalera borroka egitera itzuli nahiz ez duten indarrak ere. UGTko eta CCOOeko burukrazia sindikalek bake sozialaren politikaren jarraitzen dute. PSOEko zuzendaritza kolpista PPren morroia da, eta alderdiak bizi duen barne gatazka kontrolatu nahian dabil des-

esperatuki. Halere, etorkizun beltza dute. Podemosen ikusi dugun klase dominatzailearen saiakera serioena Pablo Iglesias boteretik kentzen ahalgintzea izan da; eta, hain zuzen ere, kontrakoa lortu dute.

Askotan gertatu den bezala, masek eskuinaren eta murrizketen erasoei egindako presiotik lortuko da indarra. Urrian eta azaroan Ikasle Sindikatuek deitutako ikasle grebek garai-pen handia lortu dute. Errebalidak kendu izanak erakusten du PPren planak atzera bota daitezkeela borroka plan kontsekuentea, masiboa eta denboran luzatuko dena aurrera eramanez gero. Baina hori ez da adibide bakarra.

Iazko azaroaz geroztik, Andaluzian mobilizazio erraldoi ugari izan dira osasun publikoaren defentsan eta Susana Díazen pribatizazio politiken aurka. Otsailaren 19an Bartzelonan 500.000 lagun bildu zituen manifestazio erraldoia izan zen, errefuxiatuei babesa eskaintzeko eta EBren politika arrazistak salatzeko. Bi adibide horiek esaten duguna berresten dute. Mobilizazio horiei Hego Euskal Herriko beste zenbait gehitu behar zaizkie: martxoaren 9ko, 22ko eta 23ko grebak, Gasteizen martxoaren 18ko manifestazio erraldoia Garoña berriro irekitzearen aurka, apirilaren 1ean Bilbon gehiengo sindikalak deitutako manifestazioa eskubide sozialen alde eta murrizketen aurka, besteak beste.

Esperientziak erakutsi du zapalduok behar dugun aldaketa ez dela etorriko burgesiarekin aliatuta, ezta erretorika parlamentarioa erabiltza ere. Langabeziaren, murrizketen, etxe-kaleratzearen, prekarietatearen eta pobreziaren izurritearekin bukatzeko eta autodeterminazio eskubidea lortzeko, beharrezkoa da kapitalismoaren eta bere erakundearen aurka borroka egitea. Hori dela eta, EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek ardur handia dute: mobilizazio batu eta masiboa bultzatu beharko lukete programa antikapitalista batekin. Batasuna nahi dugu, bai, baina borrokatzen ari garenon batasuna, sistemaren injustiziaren aurka borrokatzen duten langile eta gazteekin, nonahi-koak direla ere.

Ezin ditugu eskubide demokratikoak lortu, gure eskubide sozialak defendatu gabe. Euskal Herriaren-tzat ez da askatasunik izango sozialismorik gabe.

Katalunia: askapen nazionalerako beharrezkoa da burgesiarekin loturak haustea

MIGUEL CAMPOS
Esquerra Revolucionària

Otsailak 6tik 10era Artur Mas, Generalitateko lehendakari ohia, Joana Ortega eta Irene Rigau ministro ohiak epaitu zituzten. Fiskaltzak dio 2014ko azaroak 9ko Kataluniako independentziari buruzko herri-galdeketa ez loteslearen erantzule direla, eta Mas 10 urtez inhabilitatzea eskatu du. Epaiketa horri komunikabide atzerakoen ohiko gorroto espainolistak lagundu dio, eta PPren eraso errepresiboaren beste pauso bat da.

PP Kataluniaren eskubide demokratikoen aurka

Egun batzuen buruan, Francesc Homs (Convergenciak —orain PDCat— kongresuan duen bozeramailea) herri-galdeketa hori bultzatzeaz salatu zuten. Azken hilabete hauetan, fiskaltzak bi kereila aurkeztu ditu ERCko Carme Forcadell Parlamenteko lehendakariaren aurka, eta PPko ordezkariak antzeko epaiketekin mehatxatu dituzte PDCat eta Goberneko beste zenbait agintari, Puigdemontek beste erreferendum bat deitzeko proposamenak aurrera jarrai ez dezan.

Lehenik eta behin, marxista eta internazionalista garen neurrian, burgesia espainiarrak eta bere estatu aparatatu frankistak Kataluniako eskubide demokratiko nazionalen aurka gauzaturiko errepresio ororen kontra gaude erabat. Beti esan izan dugu, eta orain ere esaten dugu: Kataluniaren autodeterminazio eskubidearen defentsa oinarritzeko printzipioa da gizartearen eraldaketa sozialista nahi dugun guztiontzat. Murrizketak aplikatzen dituen, etxetik kale-ratzen gaituen eta frankismoaren biktimei justizia eta ordaina ukatzen dien gobernu ustel honek funtsezko eskubide bat ukatzeko eta nazionalismo espainolista borborka isurtzeko komunikabideak, polizia, epaileak eta auzitegiak erabiltzen jarraitzeak



argi eta garbi erakusten digu zer nolako “demokrazia” bizi dugun. Zer dela eta horrenbeste beldur herri katalanak independentzia lortu nahi duen ala ez adierazteari?

Kataluniako eskuin nazionalistako agintariak biktime eta martir moduan jarri ditu PPk errepresio kanpaina honenekin. %3aren, murrizketen eta pribatizazioen, errepresio polizialaren alderdiak eskuak igurzten ditu beren kide bat epaitzen duten bakoitzean. Orain biktimismo kanpaina indartu dezakete, euren burua demokraziaren defendatzailetzat aurkeztuz! Puigdemont, Mas, Pujol... Kataluniako eskuin nazionalistako politikari ustel eta atzerakoi guztiak egonkortasuna eragin dute estatu espainiarraren gobernu ahalmenean. Politikari horiek langile klasearen aurkako mota guztietako lege eta neurriak adostu zituzten Felipe Gonzalezen PSOErerkin, Aznarrekin, Rajoyrekin. Kataluniaren defentsa euren poltsikoetan, euren kontu korronteetan, Kataluniako langile klasearen eta gazteriarren kontura lorturiko etekinak bidaltzen dituzten paradisu fiskaletan hasi eta amaitzen da. Euren amarruekin osasungintza, hezkuntza eta zerbitzu publiko guztiak suntsitu arte pribatizatu

tizatuz enpresa handiak urrez josi izanak garbi erakusten du zapalduon etsaiak direla.

Inoiz ez dugu lortuko —ezta modu kontsekuentean defendatu ere— funtsezko eskubide demokratikorik, are gutxiago, autodeterminazio eskubidea, gaur egun burgesia espainiarrari komenentzia politikoagatik soilik aurre egiten dion burgesia katalanarekin. Klase arteko borrokaren historiak eta, bereziki, Kataluniakoak orokorrean ideia hau berretsi besterik ez du egiten.

CUPEk eskuin nazionalistari dion menpekotasunarekin hautsi behar du

Burgesia katalanak urte asko daramatza independentziaz hizketan, baina Katalunia ez dago bere etorkizuna askatasunez erabakitzeetik gertuago, eta ez da konpondu gazte zein langile katalanek jasaten dituzten arazo bat bakar bat ere. Burgesia espainiarrarekin harremana etetea edo legeak ez betetzea gustura aldarrikatu arren, kapitalista katalanek murrizketa eta pribatizazio politika berberak ezartzen dituzte (LOMCE, 3 + 2, lan-erreformak, etxe-kaleratzeak...).

Kataluniako iruzur fiskalaren %75 enpresa handiei dagokie, baina ogasun publiko katalanak, PPk bezala, inspektoreen %5 soilik darabil ondasan handiak ikertzen, eta %95a dabil zergadun txikien atzetik. Convergenciako Jordi Jané barne ministroak CUPeko 5 ekintzaile atxilotzeko agindu zien Mossos d'Esquadra poliziei, espainiar erregearen argazki batzuk erretzeagatik. Zertan ezberdintzen dira PPgandik?

Convergenciak eta burgesia katalanak dituzten negozioek eta klase interesek estatu espainoleko burgesiarekin lotzen ditu, eta kointzidentzia hori agerian geratu da Generalitateak onartutako aurrekontuetan. Oriol Junqueras ERCko agintariak historiako aurrekontu sozialenak balira bezala aurkeztu ditu, baina errealtatea guztiz desberdina da. Bigarren aurrekontu-sail garestiena kapitalisten eta bankarien zorra ordaintzera bideraturik dago; aldiz, itxarote-zerrenda murrizteko agindutako 96 milioiak 36 milioietara murriztu dira. Ez dago sailik indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, eta 10 milioi baino ez bideratuko dira pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko. 17 milioi euro emango dituzte arriskuzko kapitalarentzat eta industria farmazeutikoak 128 milioi euro jasoko ditu diru-laguntzetatik. Etxebizitza-politiketara bideratzen den diruak BPGbren %0,2a baino gutxiago izaten jarraituko du, eta hezkuntza

sailak, berriz ere, 2010ekoa baino gutxiago jasoko du (ikasleko 500 euro gutxiago). Aitzitik, Katalunian Opu-seko 16 eskolak 30 milioi euro jasoko dituzte, eta 1.075 milioi euro bideratuko dira itunpeko hezkuntzara.

Ez da izango autodeterminaziorik sozialismoaren aldeko borrokarik gabe

Gauzak horrela, erabateko iruzurra dira bai Oriol Junquerasek bai CUPeko agintariak aurrekontu horiek onartzeko defendatu dituzten argudioak. Hori justifikatzeko CUPen proposamena izan da dirudunak zigortzeko PFEZaren erreforma bat egitea, baina Convergenciak eta ERCk gaitzetsi egin zuten. Ikusi dugun guztiaz gain, eta azken urte hauetako esperientziaz gain, beren burua “independentista eta antikapitalista” bezala hartzen duten agintari horiek aurrekontu antisozialak onartuko dituzte, berriz ere; eta gobernua mantentzen jarraitzen dute. Hori akats larria da, eta ez du antikapitalismoarekin zerikusirik. Klase arteko kolaborazio politika da, eta eskuma katalanarekiko subordinazioa. Beraz, CUPi garesti aterako zaio. Azken galdeketen arabera, hauteskundeetan ordezkaritza %50 gal dezake.

Modu egokian, En Comú Podem-eko agintariak gogor kritikatu dituzte aurrekontuak, ezin dira hitzetan gelditu: murrizketen aurkako mo-

bilizazio masibora deitu behar dute, eta CUP eta ERC publikoki Convergenciarekin apurtzera deitu beharko lituzkete. Are gehiago, En Comú Podem-ek aurrera eraman beharko luke bere diskurtsoa gobernatzen duen udaletan, murrizketen eta hersturen logikarekin apurtzen duen benetako ezkerreko politikak aplikatuz.

Kataluniako egoerak agerian uzten du langileek eta gazteek duten borrokarako gogoaren eta ezker sindikal eta politikoa zuzendaritza erreformistek inposatzen duten desmobilizazio politikaren artean dagoen kontraesana. Aurrekontuen adibidea ez da bakarra; hezkuntzako sindikatu katalanek otsailaren 9ko greba deialdia bertan behera utzi izana beste adibide bat da. Itun sozialaren eta klase arteko kolaborazioaren politika horrek Convergenciari eta PPri baino ez die onura egiten, baina dagoen giro sozialarekin talka egiten du. Otsailaren 18an Bartzelonan errefuxiatuen aldeko 500.000 pertsonen mobilizazio masiboak edo zamaketariak jasotzen dituzten elkartasun adierazpenek frogatzen dute borroka horiek guztiak bateratzen dituen estrategia batekin, eta borroka horiek murrizketen aurkako eta gizartearen aurkako erasoen kontrako borrokarekin eta erabakitze eskubidearekin lotzen dituen estrategiarekin, benetan posible dela burgesia espainiarra eta katalana garaitzea, eta ezkerreara egingo duen iraultza soziala eragitea.

mitris Papadimoulis, Syrizakoa eta europar parlamentuko lehendakariordea. Gainera, eskaera diputatu finlandiarrek, greziarrek, portugaldarrek, danimarkarrek, alemanek, italiarrek, zipretarrek eta abarrek sinatzen dute. Era berean, Jobstowngo elkartasun kanpainara gehitu da Yanis Varoufakis, Syrizaren lehenengo gobernuko Finantzen ministro izandakoa; eta, horretaz gain, kanpaina horren ganako konpromisoa indartzeko, YouTube bideo bat eskegi du: www.youtube.com/watch?v=tTTn1mOQCqs.

• Modu baketsuan protestatzea, egatik epaituko duten gaztearen kondena deuseztatzea.

Asko izan dira dagoeneko eskaera hori sinatu duten Europako ezkerreko diputatuak. Azpimarragarrien artean ditugu: Jean-Luc Mélenchon, Frantzian Ezkerreko Alderdiko zinegotzia; Marina Albiol, Ezker Batukoa; Tania González, Podemosekoa; Lidia Senra, Alternativa Galega de Esquerdakoa; Martina Anderson, Matt Carthy, Lynn Boylan, Liadh Ni Riada, Ipar Irlandako Sinn Féin-ekoak; Di-

Bidali babesa erakusten duten mezuak —bakarka zein erakunde bezala sinatuak— honako helbidera: JobstownNotGuiltyCampaign@gmail.com

Sarean ere sinatu daiteke eskaera:

<https://sites.google.com/view/jobstownnotguilty/sign-the-petition>



Ezker Iraultzailea

Irlandako estatuak eta eskuineko gobernuak eraso bortitza zuzendu dute hain ondasun baliotsua den urari jarri nahi dioten tasa basatien aurka borrokatu zuten aktibista eta agintarien aurka. Borrokari esker, troikaren austeritate neurri nagusietako bat garaitzea lortu zuen masen mugimendu zabalak. Aipatutako kanpainak ordainketaren aurkako boikot masiboa bultzatu zuen —herriarren %75eko babesa izan zuen—, eta manifestazio jendetsuak eta protestako zenbait ekintza antolatu zituen. Azkenean, gobernua soken kontra jarri zuten eta, momentuz, uraren gaineko tasa ezabatzeraz behartu zuten.

Gobernu irlandarrak Jobstowngo borrokariak espexeratu nahi ditu

Garaipen izugarri horren ondotik, Irlandako elitea eta gobernuak mende-ku bila dabiltza, eta mugimenduari ikasgai on bat eman nahi diote: modu ireki batean agintari eta aktibistak errepinitu nahi ditu. Gainera, gaurko egunean, espexeratze arriskuan daude, afera horri dagokion zigorrak handiena da. Mugimenduko 17 agintari eta aktibista inputatu nahi dituzte “legez kanpoko atxikitzeagatik”, besteak beste, Paul Murphy parlamentaria eta Dublingo udaletxeko bi zinegotzi, hirurak Anti Austerity Alliance (AAA) eta Socialist Party-ko kideak.

Protesta egitea ez da krimen bat!

#JobstownNotGuilty // #JobstownNoEsCulpable
#JobstownEzDaErruduna

2014an izandako uraren tasen aurkako protesten harira, Jobstowngo langile auzoan, Joan Burtonen —Alderdi Laboristakoa— orduko ministro-ordearen autoa bi orduz geldiaraztea, atxikitzea, leporatzen zaie. Hortaz, legez kanpoko atxikitzea egozten zaie, bahiketa delitua! Estatu totalitario bati dagokion astakeria da. Gobernu eta troika makurraraztea lortu duen mugimendu horren izena zikintzea, gazte eta langileak izutzea, murrizketen politiken aurkako mobilizazioak geldiaraztea helburu duen muntai galanta da.

Joan den urriaren 20an, protesta horietan parte hartu zuen adin txikiko bat izan zen epaitu zuten lehena, eta “legez kanpoko atxikitzeaz” errudun hartu zuten. Bai mugimenduak bai familiak sententzia lotsagarri horri helegitea jarri diote. Apirilaren 24an, gainerako 17 kideen aurkako epaiek hasiko dira, tartean Paul Murphy eta beste zenbait agintari eta kargu publikorena; guztiek kartzela zigor luzei eta kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe uzteari aurre egin beharko diete. Instituzioetatik kanpo

botatzeko eta instituzio horiek herriaren gehiengoaren zerbitzuetarako eta gazte nahiz langileen eskubideen alde erabiltzen jarraitzea eragozteko modu antidemokratiko bat da.

Bai dagoeneko eman den sententzia, bai kide horien gainean eror daitkeen kondena aurrekari latza izango dira edozein grebatako pikete edo manifestazio baketsu zapaltzeko, lege irlandarraren begietara, “legez kanpoko atxikitzetaz” hartzeko aukera handiagoa bailegoke eta zigortua izateko aukera bermatuko bailuke.

Nazioarteko elkartasun kanpaina

Jobstowngo epaiketa politikoez gazte eta langileok gure indarregan eta gure borroka metodoengan —manifestazioak, protesta baketsuak— konfiantzarik ez izatea dute helburu, eta protesta ekintza kriminal bat dela eta aktibistok gaizkile garen mezu luzatu nahi dute. Hortaz, “bati egindako eraso, denoi egindako eraso da” esaera zaharra argi eta garbi

6. ORRIAN JARRAITZEN DU

Indarkeria matxistaren aurka, zapaltzaileekin itunik ez

Ezinezkoa da emakumearen askatasuna kapitalismoaren aurkako borrokarik gabe

MARINA MATA
Emakume aske eta borrokalariak

Eskumak "mikromatxismoei" buruzko bideo bat argitaratu du PSOE eta hedabideak sustatutako indarkeria matxistaren inguruko Estatu-itunaren kanpaina bete betean. Bertan Inés Arrimadas (Cs), Elena Valenciano (PSOE) eta Cristina Cifuentes (PP) salatzen dute asko sufritu dutela eurak agintzaileak direla esan delako edo hedabideek euren janzkerari buruz hitz egin dutelako. Bideo hori adibide bat da ikusteko klase zapaltzaileak eta bere alderdiek nola erabiltzen duten matxismoaren alderdi txiki bat, milioika emakume langileok pairatzen dugun indarkeria patriarkala eta klaseko indarkeriaren benetako izaera estaltzeko.

Inés Arrimadas, Cristina Cifuentes edo PSOEko emakume agintariak, Susana Díazek esaterako, emakumeen eskubideei buruzko hitz polit asko esan dezakete, baina euren murrizketen politikekin, hezkuntza eta osasunaren pribatizazioa bultzatu dute, milioika langile familia kaleratzeko neurriak onartu dituzte, lan erreformekin, mendekotasun laguntzak murriztu dituzte eta errepresio legeen alde egon dira... zapaltzen gaituzten kateen sorkuntzan laguntzen dute.

Emakumeak botere-guneetan, enpresetako administrazio-kontseiluetan edo bankuen interesak defendatzen dituzten gobernuetan, gutxitan egoteaz kezkatzen dira. Guk, emakume langileok, feminista iraultzaile eta sozialistak, emakumeen askapenaz beste ideia bat dugu. Emakume eta langile gisa pairatzen dugun indarkeriarekin amaitzeko sistema kapitalistarekin amaitzea ezinbestekoa da. Emakume batzuek sutsuki defen-

datzen dute sistema kapitalista, euren bizimodua eta pribilegioen iturria baita.

Murrizketek hiltzen dute eta emakumeak hiltzen dituzte

PP, Ciudadanos eta PSOEko gestore kolpistako agintariak, euren koalizioarekin, emakume eta gizonen arteko soldata desberdintasuna handitzen dute; %30 baino gehiago hazi da lan erreforma aplikatu zenetik. 2011tik 2015era mendekotasun laguntzetan 2.000 milioi euro murriztu dituzte eta, ondorioz, emakume langileoi gure lanpostuak uztera behartu digute, diru gutxiago irabazten dugulako, gure familiak arduratzeko.

Urte hauetan izan duten politikak, jendearen kontura egindako banku erreskateak, euren politiken bidez sortutako langabezi masiboak, etxera bueltatzera behartu gaitu. Ez al da hori indarkeria fisikoa hedatzeko bidea, indarkeria matxista hedatzeko bidea? Ezinezkoa da kapitalismoaren krisia eta emakume langileon hilketak banatzea. Sistema kapitalista defendatzerakoan, matxismo deitoragarrienari adorea ematen zaio: miseria eta klase zapalkuntzatik ihes egin ezin dezakegun milioika emakume langileok sufritzen duguna.

Inbertsio eta politika sozialen faltak 796 emakume erail ditu Estatu espainiarrean 2008z geroztik, baina zifra hauek ez dituzte kontuan hartzen gizon batekin harreman ezezaguna zuten emakume hildakoak edo emakume prostitutak, estatistiketatik kanpo geratzen baitira. Estatu espainiarrean emakume bat bortxatzen da 8 ordutik behin. Hau da, 1.200 bortxaketa salaketa izan dira 2015ean. Hilketak indarkeria fisiko, psikologiko eta sexualaren tragedia txarre-na da, baina hau pairatzen dugun opresio katearen icebergaren punta baino ez da. Hala ere, esperientziak erakusten du eraso matxista horiek salatzerakoan gure burua arriskuan jartzen dugula eta erasotzailearen aurrean babesgabetuta geratzen gara, bai lan munduan bai familian. Estatu botereak, legeak, polizia eta sistema judizialak ez dute gaitz honen amaitzeko balio; are gehiago, askotan zuzenean sustatzen dituzte.

Era berean, legalizatuta dagoen matxismoa modu askotan azaleratzen da. Prostituzioa era zapaltzaile eta izu-

garrienetarikoa da. Gure gorputza ez da salgai dagoen merkantzia, ezta sektoreko enpresariei mozkinak sortzeko ere. Klase zapaltzaileak eta bere Estatuak prostituzioa eta emakumeen trafikoaren gaitza babesten dute, baita poliziak eta hedabideek ere. Guztiz negargarria da "feminismo erradikal" batetik datozen sektore batzuek prostituzioaren normalizazioa, legalizazioa, alternatiba onargarri giza hartzea. Arrazoiketa berak haurren lanaren legalizazioa ekarriko luke herrirako kapitalista atzeratueta umeen esklabotzarekin "amaitzeko". Arrazoi-keta horien atzean dagoen hipokresia eta zinismoa nazkagarriak dira.



Diruagatik gure gorputza saldu nahi ez badugu, ugaltzeko ere ez dugu gure sabela alokatu nahi. Alokairuko sabelak erreproduktzio paperera mugatzen du emakumea. Azken aldian amatasun subrogatuaren inguruan egon den eztabaida emakumeen eta gure gorputzari buruzko erabakiak hartzeko ahalmenaren aurkako beste eraso bat izan da. Egoera ekonomiko larrian dauden emakumeak, gizartean baztertuta daudenak, izango lirateke euren gorputzak ordaintzeko baliabideak dituenari alokatuko liokeenak. Gazteen abortatzeko erabakia murrizten dutenek eta abortatzeko zerbitzu publiko duin bat bermatzen ez dutenek, orain, emakumeak bere gorputzak alokatzeko duten "askata-

sunari" buruz hitz egiteak gu makurtzeko era berri honen zinismoa eta aberrazioa erakusten du. Bai prostituzioa bai alokairuko sabelak irabazi handiak ematen dituzten negozioak dira, milaka milioi mugitzen dituzte betikoen onurarentzat. Emakumearen askatasunak gure gorputzaren askatasun osoa behar du, bizirik irauteko erabili beharrik gabe.

Eraldakaeta sozialistaren aldeko borroka

Emakume gazte eta langileok soberan dakigu kapitalismo eta patriarkatuaren zapalkuntza zer den, egunero sufritzen baitugu. Hori dela eta, irainduta sentitzen gara zapaltzen gaituztenak, bai gizonak bai emakumeak, gurekin identifikatzen saiatzen direnean. Badakigu zer den mendekotasun laguntzetan edo liburu eta jantziketak beketan murrizketak jasatea edo ez daukagun dirutza ordaindu behar izatea gure seme-alabak eskolara pribatu batera eramateko, ez baitago tokirik publikoetan. Gu gara, emakume langileok, presioa eta gure nagusiak kaleratuko gaituen beldurra pairatzen dugunak. Guk badakigu zer den beldurra izatea autobusa hartzerakoan, lanpostutik goizko 3etan irteterakoan, zergak ordaintzeko lan extra egin dugulako. Kontzientziazio kanpaina hipokritak ateratzen dituzten edo gutako bat hiltzerakoan isiltasun minutu bat antolatzen duten instituzio berberak guztiz babesgabetuta uzten gaituzte.

Mundu osoko emakume langileok gure eta gure klasearen askatasunaren aldeko borroka gure eskuekin hartu dugu. AEBko Donald Trumpen aurkako emakumeen martxak, "Inor gutxiago ez" mugimendua Argentinan eta Latinoamerikan emakumeen hilketen aurka, edo emakume greba Polonian abortuaren debekuaren aurka adibide batzuk baino ez dira.

Justizia soziala justizia ekonomikorik gabe ezinezkoa den gisan, ezin dugu gure berdintasun sozial eta politikari buruz hitz egin berdintasun ekonomikoaren lortu arte. Bukatu da zapaldu eta esplotatzen gaituen sistema kapitalista defendatzen duten gizon eta emakumeen demagogia. Patriarkatuarekin eta matxismoarekin amaitu nahi badugu, bide bakarra dago: gizaratearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatzea.



Siriako gerra eta esku hartze inperialista

ULISES BENITO
Esquerra Revolucionària

Ekialde Hurbila, Siria, Irak, Afganistan... etengabeko tragediaren adibide bilakatu dira. Inperialismoaren esku hartze militarrek, eraso sektarioak eta terrorismo jihadista, kaosa, suntsiketa eta, horien ondorioz, desplazamenduak, gosea, errepresioa eta zibilizazioaren oinarriak suntsitzea egunerokoak dira milioika eta milioika pertsonentzat. Egoera hori mundu mailako kapitalismoak duen krisi ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren ondorio zuzena da. Gainera, azken urteetan areagotu egin da inperialisten arteko gatazka merkatuaren, lehengaien, komunikabideen eta garrantzia geostrategikoa duten eremuen gaineko kontrola eskuratzeko.

Udaberri Arabiarra

Nazioarteko burgesiarentzat, soldatapean dituzten kazetarientzat eta

ezkerreko agintari erreformista batzuentzat Udaberri Arabiarrarengatik, hau da, masa zapalduak erregimen diktatorialen uztarria kentzeko egindako borrokagatik ordain behar izan dute hori guztia. 2010 eta 2011n inperialismoa kinka larrian jarri eta Magreb, Egipto eta Ekialde Hurbila astindu zituen mugimendu iraultzailea zikintzeko kanpaina horretan, mota askotako argumentu eta datuak erabiltzen dira. Esate baterako, NBEkiazko azaroan aurkeztutako txosten batean kalkulatu zen 600.000 milioi euro kostua (BPGaren % 6) eragin zuela iraultzak. Libiako kaosa, Egiptoko diktadura militarra, Siriako gerra, jihadismoa... Halakorik ez litzateke egongo baldin eta masak altxatuko ez balira. A ze zinismoa! Izatez, azken urteetan ikusi dugunak kontrakoa erakusten digu.

Herrialde horiek bizi duten etengabeko sarraski egoera hori potentzia inperialistek eta herrialde horietako klase agintariak eraikitako

kontrairaultzaren ondorio da. Gainera, erakusten du programa sozialista eta internazionalista duen erakunde iraultzailerik ez badago, uholde iraultzailea erdibidean gelditzen dela, ez dela betetzen; beraz, kontrairaultzaren ofentsibari bidea irekitzen dio. Herrialde arabiarretako zapalduen iraultza, momentuz, garaitu egin dute potentzia inperialistek era guztietako metodoak erabiliz: inoiz iritsi ez diren erreforma demokratikoak hitz emanda, golpe militarren bidez —Egipton, esaterako— eta ezkerreko ekintzaileen eta langile mugimenduaren aurkako errepresio basatia erabilita. Halaber, zuzeneko esku hartze militarra erabili dute iraultza armadaren bidez geldiarazteko eta jihadista mertzenarioen armadak sortu dituzte.

Guztiak ados iraultza desbideratzearekin

2011ko martxoan Siriako langile eta gazteak masiboki atera ziren kale-

ra, Tunisiako, Egiptoko eta gaine-rako herrialdeetako anaia-arrebak bezala. Herriarren haserre piztu zuen azken eragilea Daraako gazteei erakutsitako elkartasuna izan zen; izan ere, gazte horiek gogor torturatu zituzten Bashar Al-Assaden aurkako pintaketa egiteagatik. Errepresioak eta bizi baldintzak okertzeak eragindako haserreak egoera leherrazitu du eta borrokan parte hartzeko konfiantza piztu zuen. Ehunka komite iraultzaile sortu ziren herrialde osoan, eta mota guztietako ekimen politiko eta kulturalak antolatu zituzten. Poliziaren errepresioaren gainetik, fenomeno hiri guztietara hedatu zen, eta leku batzuetan botere bikoitza lortu zen. Gutxiak pentsatzen zuen Udaberri Arabiarrak Siria egonkorrean eragingo zuenik. Beste behin, alarma hotsak entzuten ziren munduko boteretsuak elkartzen diren lekuan. Lehenago masen mugimenduak Ben Ali boteretik kendu zuen Tunisian eta Mubarak Egipton.

Une hartan, Bashar Al-Assaden gobernuan eta potentzia inperialistak ados zeuden oinarritzko ideia batean: hasi berria zen iraultza desbideratu beharra zegoen. Gogoratu behar dugu, ezker estalinistako sektore batzuek aurrerakoitz hartzen badute ere, gaurko Al-Assadek ez duela zer ikustekorik SESBekin harremanak zituen harekin eta “sozialismo baasista” delakoaren izenean erreforma sozialak aurrera eraman edo oinarritzko sektore eta enpresak nazionalizatu zituen harekin. Bashar Al-Assadek, Gadafik bezala, Errusian Putinek bezala, iraganeko elementu “sozialistak” ahuldu zituen ekonomia liberalizatuz, estatu-enpresak nazionalizatuz eta inperialismo estatubatuarrekin kanpo eta merkataritza harremanak irekiz. Jakina, erretorika sozialista eta antiinperialista erabili behar zuenean ez zuen horretarako arazorik, baina horrek ez zuen baztertzen bere erregimenaren izaera kapitalista.

Tunisiako eta Egiptoko esperientziatik ikasita, Al-Assad altxamenduaren kimu oro zapaltzen ahalegindu zen, manifestarien aurka tirokatuz eta herri osoak beldurtuz. Horrek, ezinbestean, komite iraultzaileak arma hartzera behartu zituen mobilizazioen segurtasuna bermatzeko. Bestalde, Siriako gobernuak gutxiengo erlijiosoak izutzen saiatu zen, batez



ere alaiak (erregimenaren oinarria), esanez manifestarien artean integrista suniak zeudela. Enfrentamendu sektarioak indartzeko, talde islamistak agintariak askatu zituen; halere, AEBek eta Pertiak Golkoko aliatuen laguntza ekonomiko eta militarra esker jokatu ahal izan zuten jokatuzuten papera. Libian bezala, “herriarren laguntzat” aurkeztu zuten beren burua.

Horrela, Mendebaldeko inperialismoaren laguntzari esker lortutako arma, diru eta mertzenarioekin, kimu iraultzailea jihadismoaren ur atzerakoietara desbideratu zen. Noski, AEBrentzat eta bere aliatuentzat helburua bikoitza zen: Siriako iraultza garaitzea eta Bashar Al-Assad boteretik kentzea Iranen, Errusiaren eta gainerako aliatuen babesa ahulduz. *Joko handia* hasi zen.

Iparramerikako inperialismoak esperientzia handia du iraultzak desbideratzen. Halere, kasu honetan, munduko korrelazio indarren eta tropekin esku hartzeko duen ahultasunaren ondorioz, zenbait maniobra eta giro egin behar izan ditu, eta porrot egin dute. Etxe Zuriak, Obamaren gidaritzapean, sektore atzeratuenekin loturak ezartzen hasi zen jihadismo islamista indartu eta elementu iraultzaileei aurka egiteko. Soldadu eta militar askok, baita Siriako Armada Askekoek ere, uko egin zioten errepresioan parte hartzeari eta beren buruak manifestazioak babesteko eskaini zituzten. Horrela, AEBk eta beren aliatuek, Qatarrek, Saudi Arabiak eta Turkiak, talde armatuak sortu zituzten.

Iraultza desbideratzen duten bitartean, potentzia bakoitzak bere interesak ditu Sirian. Alde batetik, inte-

resa dute herrialdearen izaera politiko eta geostrategikoagatik, Errusiak Mediterraneoan lukeen base bakarra litzateke; gainera, Siria Hezbola ahultzeko erabil daiteke, eta Irani kolpe latza eman dakioke bertatik. Era berean, Kurdistango erresistentzia zapaldu daiteke Siriatic. Bestalde, interes ekonomikoa dago, lehengaiak garraiatzeko eskualde garrantzitsua baita. Gainera, gaseodukto bat eraiki daiteke Siriatic Europara gasez hornitzeko; hartara, ez litzateke Errusia izango gas hornitzaile nagusia.

Duela 6 urte hasi zen Siriako gerra. Halako gatazka luzea hasierako altxamendu sozialaren porrotarekin azaldu daiteke, baina batez ere Mendebaleko inperialismoak erregimena garaitzeko eta Siria kontrolatzeko duen asmoek azaltzen dute. Al-Assaden gobernuak eta talde islamista suniek (talde armatu gehienak) nahikoa indar dute beren etsaiak zapaltzeko. Halere, gauza bat argi dago: Al-Assaden gobernu berehala erokiko uste zutenak nahastu dira. Damaskoko gobernuaren ordezkari metodiko faxistak dituen Estatu Islamikoa ezartzeak ez ditu masa siriarrak erakartzen.

Errusia, Iran eta Aleporen erotzea

Askori harridura eragin zion Alepo erori izanak. Abenduaren 12an Arabiar Emirerri Batuetako *The National* egunkari nagusiak, jihadistien aldekoa hala zioen: “Herrialdeko eta nazioarteko eragile askorentzat misterio ulertezina da; izan ere, borroka gogor eta duina espero zen hiriak duen garrantzia estrategikoagatik (...). Taldeen arteko tirabirak, batetik besteari egindako akusazioak dira hondamendia eragin dutenak” eta

“herritar gehienak [beraiek kontrolatzen dituzten auzoetakoa] armada siriarri informazioa pasatu izana” garrantzitsua izan da porrot egiteko. 150.000 biztanleetatik 110.000 Gobernuak kontrolatzen zituen auzuneetara pasatu ziren, eta 40.000 pasatu ziren Idlib-era, milizia jihadistek kontrolatutako gunera. Jakina, herritar gehienak nekatuta daude 310.000 hildako, 11 milioi desplazatu eta suntsiketa eragin dituen etengabeko gerra honekin eta metodo odoltsuak erabiltzen dituen gobernuarekin, Estatu Islamikoarekin, eta bakea eta gatazkaren amaiera desio dute.

Zalantzarik gabe, elementu horiek azaltzen dute porrota, baina gauza gehiago badago. Faktore garrantzitsuak izan dira Errusiak gerran eskua sartu izana, Erdoganek aliantzetan egindako aldaketak eta inperialismo estatubatuarraren ahultasuna gatazka konpontzeko.

Bando jihadistak izaera aurre-rakoirik ez duenez, erregimena indartu egin da, baina ikusteko dago zein izango den Al-Assaden geroa, eta Putin izango da azken erabakia hartuko duena. Errusiako hegazkinek, Hezbolaren formakuntza militarra jaso duten gizonek, irandar *Pasdarango* eliteko militarrek eta Irak eta Afganistango paramilitarrek esku hartu izan ez balute, Damaskoko erregimenak ezin izango zukeen herrialde osoan garai-pen militarra lortu. Al-Assadek Alepon lortutako garaipenak Gobernuan mantentzen lagundu dio, momentuz Moskuko diplomaziak hala nahi duelako. Hain zuzen ere, Astana-n (Kaza-

jistan) egindako “bake” negoziazioetatik kendu ezin zuten Al-Assad gobernutik kentzeko eskaera.

Errusia bere eragin eremua handitzen ari da bere mugetatik harata-go, inperialismo estatubatuarrarekin, frantziarrarekin eta britainiarrarekin lehian. Pieza garrantzitsu bilakatu da, beste arbitro bat, Estatu Batuen kaltean. Gainera, Egipto, besteen aliatu ohia, erakartzen ari da, eta bertako gobernuak onartu du ontzien manio-brak egitea Sinain. Era berean, Siriari laguntza militarra emateko zehazten ari da Siria.

Bestalde, Iran indarra hartzen ari den potentzia da. Lehenik eta behin Iraken eragin politiko eta militarra izatea lortu zuen Mobilizazio Indar Herritarra erakunde paramilitar xiten eta antzeko banden eta armadaren eraginez. Bere presentzia hazi egin da Sirian, eta 80ko hamarkadako Iraken aurkako gerran izandako esku hartzeaz geroztik izan den esku hartzerik handiena protagonizatu du. Gainera, mundu mailan xiiten defendatzaile gisa aurkezten den bere burua. Mulen erregimena inperialismoaren ardatz bilakatu da eskualdean eta Saudi Arabia betiko etsaia ahuldu du.

Era berean, Iran eta Saudi Arabiaren arteko aspaldiko gatazkak eta Udaberri Arabiaren berotasunean atera ziren iraultza kimuak talka sektarioen bidez garaitu izanak azaltzen du Yemengo gerra, nahiz eta hortaz komunikabideek ez duten ezer esaten. Yemenen gutxienez 10.000 pertsona hil eta hiru milioi desplazatu di-

ra. Gainera, biztanleen %90 nazioarteko laguntzei esker bizi da. Arabia da Marokorekin, Jordaniarekin, Sudanekin, Somaliarekin eta Senegalekin duen koalizio burua, eta Estatu Batuen eta Britainia Handiaren babesa du lurreko zein aireko esku hartzerako. Inperialismoaren esku hartze horrek mundu arabiarreko herrialde behartsuena suntsitu du. Nazioarteko legeek debekatu dituen arren, Brasilen eta AEBn egindako razimo bonbak eta estatu espainiarrak saldu-tako armak erabiltzen dituzte herritarren, ospitaleen, eskolen, meskiten eta merkatuen aurka sistematikoki.

Siriako gatazka ulertzeko beste gakoa da Kurdistan. Kurduak gehiago dira Rojava izenez ezagutzen den Siriako iparraldeko eskualdean, eta erakunde indartsuena den PYD erakundeak —Batasun Demokratikorako Alderdia, PKKrekin lotura du— Estatuak errebolta sozialak zirela eta abandonatu zituen udal administrazioetan utzitako hutsunea baliatu zuen bere botera ezartzeko. Geroztik, bere miliziak sortu eta garatu ditu: YPG eta YPJ. Horiekin Rojavatik Estatu Islamikoa bidaltzeko gogor borrokatu du. Milizia kurduen garai-pen militar horrek Damaskoko boteretik beregaina edo independentea den zerbaiten esperantza piztu du. Aurreikuspen hori, ordea, amesgaiztoa da inperialismo turkiarrarentzat, eta horrela uler daiteke Erdoganen eta Putinen arteko aliantza.

Errusiaren eta Turkiaren arteko adiskidetasun berria

Hain zuzen ere, Errusiaren eta Turkiaren arteko adostasunak mundua harritu du, eta erakusten dute krisi kapitalistaren eraginez nazioarteko harremanek duten ezegonkortasuna eta Estatu Batuen gainbehera.

Turkia da, Saudi Arabiarekin eta Qatarrekin batera, milizia jihadisten, Al Qaedaen eta Estatu Islamikoaren patrozinatzaile nagusia. Hala ere, bere agenda aldatu egin da. Orain ez da horren beharrezkoa Damaskon gobernu morroi bat izatea, baizik eta Turkiako kurduentzat eredu izango den semi-estatu kurdua militarki eragozte. Iranek, Al-Assaden aliatuak, interes berberak ditu, Kurdistanen parte handi bat okupatzen baitu. Erdoganen eta bere laguntzaileen asmoa da Siriako iparraldean protektoratu bat



sortzea kurduen askapen borroka geldiarazteko eta Siriako gainerako eskualdeetan aplikatu nahi duten politika diseinatzeko.

Helburu horri jarraituz, Turkiako armadak aurre egin die milizia kurduei, eta baita Estatu Islamikoari ere, kurduak baino lehen eskuratzeko okupatu dituzten hiriak. Horrela uler daiteke Turkiak jihadisten esku zegoen Mosul Irakeko hirira sartu izana.

Turkiak eta Errusiak duten ituna gardena da: batetik, Erdoganek, momentuz, onartzen du Al-Assadek boterean jarrai dezan, milizia jihadisten erresistentzia gaitasuna ahulduz eta, bestetik, Damaskoko erregimenak bidea libre uzten dio armada turkiarri Rojavan. Estrategia aldaketa hori nabarmena izan da Alepon. Aurretiaz Erdoganek esan zuen ez zuela onartuko Alepo eror zedin. Halere, behin erori zenean, ez zuen saiheste-ko ezer egin eta ez zuen protestatu. Areago, Alepo ondoan dagoen Estatu Islamikoaren menpeko Al-Bab hiriaren aurkako ofentsiban turkiarrek milizia kurduen posizioei egin die eraso, Errusiako hegazkinen eta Siriako gobernuaren laguntzaz.

Iraganean etsai zirenen interesen bategite horrek ahalbidetu zituen abenduaren 29an abiatu zen su-etena eta Astanako negoziazioak. Bi parteei interesatzen zaie, oraingoz behintzat, su etena eta indarrak elkartzera Al Qaedaen eta Estatu Islamikoaren aurka; eta bide batez, Rojavako *de facto* Estatu suntsitu nahi dute. Halere, Turkiak Sirian dituen morroi diziplinatzen ari bada ere, zaila izango du; izan ere, kama-

rilla bakoitzaren interes pertsonalak oztupo dira eta jihadisten bi erakundeekin dituzten loturek gatazka berriak sortuko dituzte.

Siriako gerraren geroa zein izango den ezin da jakin, ez ezinezkoa da pronostiko itxi bat egitea. Siria gogor kolpatu dute, eta herrialde horretan inperialismoak dituen interesak kontuan hartuta, posible da protektora-tu bat sortzea.

Inperialismo estatubatuarraren ahultasuna

Momentuz, *Joko handi* honetan inperialismo estatubatuarra izan da gaitzaile nagusia. Sirian ez dago bere interesak defendatuko dituen inor, nahiz eta milaka milioi gastatu dituen eta inteligentzia zerbitzuak erabili dituen bertan.

Inpotentzia horren arrazoi nagusia politikoa da, eta mundu mailako krisi garai honetan inperialismo estatubatuarrak duen ahultasun estrukturalarekin du lotura. Afganistanen eta Iraken eskua sartu izana garesti atera zaio Etxe Zuriari. Bushen iraganeko “garaipenak” bere kontrako bilakatu dira, eta Ipar Amerikako mugen barruan klase arteko borrokak izandako goraldiak asko mugatu du burgesiaren manio-brak gaitasuna. Udaberri Arabiarra hasi zenetik, inperialismo estatubatuarrak presio diplomatiko eta ekonomiko handia egin du, baina ez da gai izan tropak mobilizatzeke. Siriaren kasuan hori nabarmena izan da. Eta arrazoiak da izan demokrazia-ekin, NBErekin edo giza eskubidee-

kin duen konpromisoa; aitzitik, mari-neak Siriara bidaltzeak AEBn masen mugimendua piztuko zukeen, sarras-ki handiagoa eragiteaz gain.

Ez dakigu zer gertatuko den Sirian, faktore asko baitaude, eta su-etena presio asko ditu. Akordioak lortuta ere, ez dago argi miliziek onartuko ote duten.

Su-etenarekin edo gabe, akordioekin edo gabe, inperialismoen arteko borroka, gorroto sektarioak eta mundu mailako kapitalismoaren krisiak ez dute utziko gerra aurreko garaira itzultzten. Aitzitik, bakeaz hitz egiten duten bitartean, potentzia guztiak gerrarako prestatzen ari dira: Saudi Arabia, Golkoko estatuak, Egipto, Irak, Israel eta Turkia armak eskuratzen ari dira.

Kapitalismoa gerra da, gosea eta etenik gabeko basakeria. Nazio eta gutxiengo etniko eta erlijioso guztien autodeterminazio eskubidea onartzen duen Federazio Sozialista bategi bakarrik bermatuko du kaos eta basakeria honetatik irtetea. Horrela bakarrik bermatu ahal izango da gerrak gogor kolpatu duen gehiengo zapalduaren bizi baldintza duina, multinazional inperialisten eta latifundisten desjabetze iraultzaileekin eta potentzien menpeko erregimenak suntsituz.

Udaberri Arabiarrak emandao ikasgai handiena da inperialismoarekin eta kapitalismoarekin eten behar dela prozesua burura eramateko eta sozialismoaren oinarriak ezarri behar direla. Siriako, Ekialde Hurbileko eta herrialde arabiarretako prozesuak ez daude munduko gertakarietatik aparte. Aitzitik, batasun argi bat dago. Udaberri Arabiarrak eragin nabarmena izan zuen herrialde ez arabiarretan: M15 mugimendua Egiptoko Tahriri plaza hartzeak inspiratu zuen, eta gauza bera gertatu zen Tel Aviven Haserretuen mugimenduaren, Wisconsinen eta AEBn Occuy Wall Street mugimenduarekin, Afrikako herrialde askotan, Iranen...

Gaur Magreb eta Ekiade Hurbila inperialismoak ezarritako hauts eta behelainozko gau batean murgilduta daude. Masak zigortu nahi dituzten izan duten ausardiagatik. Baina hori ez da betirako ziango. Europako eta Estatu Batuetako gertakariak adertuta masa arabiarrek ekintzara pasatuko dira berriro. Azken urte gogor hauetako ikasgaiak ikasita, iraultza sozialista berriro jarriko da mahai gainean.





AEB: Trumpen aurkako
erresistentzia zabalduz doa

Kshama Sawant-i elkarrizketa

AEBko Socialist
Alternativeko zuzendaria

AEBen historia garaikideko administrazio atzerakoi, basati eta intoleranteenak bat iritsi da boterera. Hala ere, erresistentzia hasi da. Mobilizazio jendetsuek eman diote ongietorria Donald Trumpi. Urtarrilaren 21ean, 4 milioi pertsonak kaleak bete zituzten Ipar Ameriketako hiririk garrantzitsuenetan, lehendakari misoginoaren eta abortua bezalako eskubideak suntsitu nahi duen administrazioaren aurka. Emakumeen Martxa AEBren historiako protesta handienetakoa izan da, eta bost kontinenteetako 600 hiritara zabaldur zen. Mundu mailako protesta handiena izan zen 2003ko Irakeko gerraren aurkakoaz geroztik.

Etorkinak AEBn ez sartzeko presidente-dekretu bat onartu eta berehala mobilizazio jendetsuak piztu zituen. Socialist Alternativeko (AEBko CIT) kideak mugimendua-

ren lehen lerroan daude borroka bultzatzen eta klaseko politika sozialista, internazionalista eta arrazakeriaren aurkako defenda.

Ezker Iraultzaileak Kshama Sawant elkarrizketatzeko aukera izan du. 2013an Seattleko udaleko zinegotzi izendatu zuten zuten Socialist Alternative alderdiaren izenean, ehunka pertsonen, borondatez, orduko 15 dolarreko gutxieneko soldata defendatzeko egindako kanpainaren ondorioz. Sei hilabete geroago, aldarrikapen hori lortu zen hirian. Kshamak modu aktiboan parte hartzen du Black Lives Matter mugimenduan (“Beltzen bizitzak axola du”), ingurugiroaren aldeko mugimenduan, beste hainbat borroka gain etxebizitza duinen aldekoak zuzendu ditu eta finantziario osagarria gisa hainbat milioi lortu ditu etxerik gabekoentzat eta beste gizarte zerbitzu batzuetarako.

Ezker Iraultzailea.- Trump Etxe Zurira iristea kolpe gogorra izan da munduko gazte eta langileentzat. Zeintzuk dira bera hautatua izatearen arrazoiak?

Kshama Sawant.- Trumpen aukeraketa inflexio puntu garrantzitsua da bai Ipar Amerikako politikan baita mundu mailakoan ere. Kargura iritsi zenetik sektore publikoko langileen, etorkinen eta ingurugiroaren aurka egin du. Obamaren osasun legea atzera botatzeko agindu du, Keystone eta Ipar Dakotako petrolio hodien eraikuntza onartu, paperik gabeko etorkinei eraso egin die eta hegoaldeko mugako hesia eraikitzea agindu du.

Trumpen agenda arrazistak, etorkinen aurkakoak, misoginoak, fanatikoak eta eskuindarrak ez du AEBko langileen gehiengoaren nahia betetzen. Trump herrialdearen historiako presidentegai gorrotatuena izan da. Bere aurkaria zen Alderdi Demokratiko Hillary Clintonek baino 3 milioi bozka gutxiagorekin irabazi zuen. Errepublikanoen aurreko hautagai izan ziren Romney eta McCainek baino bozka gutxiago lortu zituen, baita George W. Bushen baino gutxiago ere. Milioika estatubatuar behartsu eta zapalduenak ez dute bozkatu hauteskunde hauetan.

Bera hautatu izanak, batez ere, Clintonen aurkako gaitzespena adie-

razten du, hautesleek zuzenki “establishment” politikoarekin identifikatu zutelako. Trump eskuineko demagogo, gezurti eta iruzurti bat da. Nahiz eta “statu quo”-arekiko langileen haserre zuzena izan, Trump horretaz baliatu da bera “sistemaren” parte ez dela sinestarazteko. Ahazturiko langile klaseko gizon eta emakumeen defendatzaile bezala aurkeztu zuen bere burua, nahiz eta bere kabinetea multimiliodunetz josirik egon. Lanpostuak berreskuratuko zituela zin egin zuen, eta Clintonek onartutako Ipar Atlantikoko Merkato Askeko Itunaren aurka mintzatu zen, hainbat estatutan lanpostuak suntsitu zituen. Gainera, politika multimiliodunen eta enpre-

sa lobbyen atzaparretatik askatuko zuela zin egin zuen.

Botere ekonomiko handiei aurka egin, langile, zapaldu eta behartsuen interesak defendatu eta Trumpen eskuineko populismoari aurka egingo liokeen ezkerreko hautagairik ez izatea da honek izan duen abantaila. Bernie Sandersek lehen itzulian izandako arrakastak erakutsi zuen ezkerreko hautagai batentzako egoera aproposa zela. Milioiunen klasearen aurkako iraultza politiko baterako deiak oihartzun handia izan zuen langileen artean, batez ere gazteengan. Inkestek zera zioten: Sanders hauteskundeetara aurkeztuko balitz Trumpi irabazi egingo liokeela. Hala eta guztiz ere, elite demokratik nahiago izan zuen galtzeko arriskua hartu langile klasearen aldeko programa bati loturik egon baino.

EI.- AEBk izugarritzko polarizazio politiko eta soziala bizi du. Konta ahal diezagukezu urteotako borroka garrantzitsuenak eta horien eragina bizi ditugun gertakarietan?

KS.- Azken lau hamarkadetan aldaketa historikoa gertatu da bizi baldintzetan, eta horrek markatu ditu egon diren borroka garrantzitsuak. Ikasle estatubatuarrek zor ikaragarriak dituzte ikasle-maileguen ondorioz. Enpleguaren hazkuntza zer-

bitzuen sektorean izan da, soldata baxuekin eta ia sindikaturik gabe. Beste sektore batzuetan afiliazioa oso baxua da, eta hamarkadak daramatzate soldatak geldirik. Horren ondorioz, gazte zein langileek orduko 15 dolarreko gutxieneko soldataren aldeko borroka babestu dute. Seattlen, udaletxean dugun posizioarik esker eta “15 Now” kanpaina behetik erai ki dugunez, Socialist Alternativek lehen garaipena lortzen lagundu zuen hiri garrantzitsu batean. Orduz geroztik, langileek beste hainbat hiritan 15 dolarrak lortu dituzte, baita gutxieneko soldataren beste hainbat igoera garrantzitsu ere. Gaur egun Minneapolis borroka horretan da.

Gazteria borrokaren lehen lerroan egon da eskubide zibilen aldeko borroka berrietan eta paperik gabeko langileen eskubideen aldeko borrokan, Black Lives Matter barne. Unibertsitate campus askotan emakumeen eskubideen aldeko eta indarkeria sexualaren aurkako mugimenduak sortu dira. Carry that Weight (“Eraman pisu hori”) mugimendua adibide ona da. Kargu hartze egunean hezkuntza ertaineko, bigarren hezkuntzako eta unibertsitateetako 16 campusetako milaka ikaslele parrak eta protestak antolatu zituzten. Ekintza hauek Socialist Students-ek antolatu zituen, Socialist Alternativek

campusetan hasitako mugimenduak. Millennials-ek (XX. mende bukaeran jaiotako gazteak) ere lagundu du ingurugiroaren aldeko borroka irabazten nazio osoan zehar, besteak beste, petrolio hobien aurka eta itsas-sakoneko zulaketan, ikatz ekoizpenen eta frackingaren aurka. Laburbilduz, sozialismoa orain kapitalismoa baino popularragoa da gazteen artean.

Borrokarako borondate handia dago sektore askotan, sindikatueta antolatutako langile zein antolatu gabeko artean. Enpresarien lagun diren burokratei erronka egingo dien zuzendari borrokalari eta aktibista argiak behar ditugu. Konfiantza dut milioika langile gazte eta millennialsek aukera historiko hau aprobetxatuko dutela Trumpen eta milioiunen aurka borrokatzeko.

EI.- Socialist Alternative eta zuk zeuk, Bernie Sanderseen lehen itzuliko kanpainan parte hartu zenuten programa sozialista bat eta Alderdi Demokratikoko haustura defendatzen. Zein da zure iritzia Clintoni emandako babesaz eta bere mugimenduaren etorkizunaz?

KS.- Bernieren kanpainak milioika pertsona piztu zituen, eta sozialismoari buruzko eztabaida inoiz baino gehiago ireki zen. Ez geunden ados demokrata bezala aurkeztearekin,





ezta hautagai demokratari emandako babesarekin ere, bera hauteskunde orokorretara hautagai independente bezala aurkeztu beharrean, edo Alderdi Berdeko Jill Steinekin kanpaina independentean aurkezteaz.

Mugimendua Hillary Clinton bezalako demokrata neoliberal baten atzean ipiniz, iraultza politikorako potentziala sabotatu zuen. Azkenik, Sandersek amore eman izanak jarraitzaile batzuk Trumpen besoetara jaurti zituen. Milioitik gora pertsonak ez zuten bozkatu. Erabaki horrek egur gehiago bota zuen sutara. Bipartidismoari klase ertainak eta langileek dioten gorrotoak eta enpresa handien aldeko politika lotsagabeak lagundu zuten Trump boterera irits zedin oinarriak sortzen, nahiz eta era distortsionatu batean izan.

Bernie Sanders gizon errespetatua da, eta oraindik jendea Alderdi Demokratara bideratzen jarraitzen du. Alderdi Demokratara barrutik ezkerre-
ra bultzatzearen ideian sinesten duela dio. Bere talde propioa sortu du, Our Revolution ("Gure Iraultza"), Alderdi Demokratara barruan lanean dabil, eta pauso batzuk eman ditu Kaliforniako

zuzendaritza demokratan posizio garrantzitsuak irabazteko.

EI.- Zeintzuk dira klase arteko borrokarako aurreikuspenak?

KS.- Kargu hartzeko asteburuan izandako protestak kolpe gogorra izan ziren Trumpen administrazioaren sinesgarritasunerako. Ezin izan zituen aulkiak bete Washington DCn eta Emakumeen Martxa AEBen historiako mobilizaziorik handiena izan zen.

Socialist Alternativek uste du Trump eta milioiunen klasea garaitzeko mugimendu borrokalari bat behar dugula, desobedientzia zibil biolentziarik gabea eta taktika disruptiboak gure eskubideak defendatzeko, langileen bizi baldintzak hobetuko dituzten politikak bultzatzeko. Mugimendu hauek %99aren gehiengo batasuna behar izango dute, sindikatuak, langileak, eskubide zibilen aldeko aktibistak, emakumeen eta ingurumenaren aldeko mugimenduak, Sandersen jarraitzaileak, demokrata aurrerakoiak, sozialista eta berdeak. Trumpen aurkako borrokan oinarritu behar da, eta ez demokratentzat onargarria denean. Ez dugu

uste, Wall Streeten interesek kontrolatutako Alderdi Demokratik behar dugun eskeleto politiko borrokalaria emango digunik. Ezin dugu borrokatu iraultza politiko baten alde klase milioiunen aurka klase horren interesei erantzuten dien alderdi bati loturik bagaude.

Milaka pertsonako martxek autobideak itxi ditzakete eta normaltasuna geldiarazteko erak aurkitu. Masen ekintza, baketsu eta zuzenak behar ditugu gure anai-arreba etorkinen kanporatzeak geldiarazteko. Gure mugimenduak ere beharrezkoa du Sandersek gizarteratu zuen errebindikazioa babestea: Medicare guztiontzat, orduko 15 dolarreko gutxieneko soldata, doako goi mailako hezkuntza, obra publiko masiboen programa, azpiegitura berriak, garraio publikoak eta energia berdeak garatzeko aberatsei zergak jartzea, Estatuaren basakeria poliziala eta errepresio arrazistaren bukaera.

Garai zailak dira. Atzerapenak eta porrotak sufrituko ditugu. Baina potentzial ikaragarria dago, ez borroka eraikitze soilik, baita langileek garaipen garrantzitsuak lortzeko ere.

ANTOLATU ZAITEZ

EZKER IRAULTZAILEAN!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN
AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!



deko borrokaekin hasitako borroka berreskuratu behar dute.

Antolatze garaia da!

Ezker Iraultzailea osatzen dugun Euskal Herriko langile eta gazteok Ikasle Sindikatuak, langile klasearen borroketan eta mugimendu sozialetan parte hartzen dugu programa antikapitalista, sozialista eta internazionalista defendatuz. Ez gara konformak izaten noizean behin bozkatzera joanda. Aritmetika parlamentarioek ez dute lortuko euskal burgesiaren edo burgesia espainiarraren edo europarraren planak atzera botatzea. Kapitalistak garaitu nahi baditugu, azken urteetan eskuina kinka larrian jarri duen altxamendu sozialean sakondu behar dugu; eta borroka hau antolakuntza iraultzaile bilakatu behar dugu gure ikastetxeetan, enpresetan, lantokietan, herri, hiri eta auzoetan. Herriak bakarrik salba dezake herria.

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Ikasle Sindikatuak urriaren 26rako hezkuntza komunitateko greba orokorrera egindako deia adibide bikaina da. LOMCEk eta errebalida frankistek milaka gazte bigarren hezkuntzatik kanporatu nahi ditu, eta unibertsitaterako sarbidea itxi nahi diete. PPren Gobernuaren motibazioa hau da: langile familetako gazteen etorkizuna prekarietatea eta lan zapalkuntza bada, zertarako gastatu dirua beren hezkuntzan?

Ezker Iraultzaileak aktiboki babesten du U26ko ikasle greba, eta uste dugu mobilizazio soziala berreskuratzeko abiapuntutzat hartu be-

har dela. Hori dela eta, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzei eskatzen diegu ez daitezela mugatu Parlamentuko oposizioa, ez dezatela itunik egin EAJrekin eta ez daitezela erori sistemako gainerako alderdien planteamenduetan. Masen mobilizazioa sustatzeko ardura dute, M15ekin, greba orokorrekin eta gure herriaren eskubide demokratikoen al-

Antola zaitez Ezker Iraultzailean!

Parte hartu Ezker Iraultzailearen taldeetan unibertsitatean, institutuan eta lantokietan!

Helbide hauetan bat egin dezakezu gurekin:

www.euskalherriasozialista.net / www.izquierdarevolucionaria.net

- LOMCE, errebalida frankistak eta 3+2 atzera botatzearen alde. Hezkuntza publiko duina, demokratikoa eta doakoa haur eskolatik unibertsitatera bitartean.
- Osasun duina, doakoa eta unibertsala guztiontzat.
- Etxe kaleratzeak legez debekatzea. Etxebizitza publikoak alokairu sozialekin, bankuen esku dauden etxebizitza hutsak desjabetu behar dira!
- Lan erreformak eta pentsioen erreforma indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin, soldataren %100arekin eta gazteentzat errelebu kontratuarekin.
- Benetako elkartasuna errefuxiatuekin: ez kuporik, zentro itxirik! Atzerritarren Legea indargabetu behar da eta CIEak itxi!

- Pribatizatu dituzten zerbitzu publikoan bermunizipalatu behar dira, langile kopurua mantendu edo handiagotuz eta lan eskubideak bermatuz.
- 1.100 euroko oinarritzko soldata eta 35 orduko lan astea soldata jaitsi gabe.
- Adierazpen, elkartze eta antolatze eskubideak bermatzea. Mozal legea indargabetzea.
- Bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen nazionalizazioa pertsonak salbatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren eta errepublika sozialistaren alde.

KANPORA LOMCE, HEZIBERRI ETA 3+2a!

PPren eta EAJren murrizketen aurka!
Hezkuntza publiko, euskaldun, doako eta laikoaren alde!

Denok **Martxoaren 23ko**
ikasle grebara!

2016-17ko ikasturtea bultzada ika-
ragarria izan da hezkuntza publi-
koaren defentsan eta LOMCE, Hezi-
berri, 3+2 eta murrizketen aurkako
borrokan, Euskal Herrian naiz Esta-
tu espainiar mailan. Borroka honen
lehen lerroan egon diren milaka eta
milaka gazterentzat, nahiz langile
askorentzat, mobilizazio hauek es-
kuinaren, PPren eta PNVren politi-
ka frankista eta kapitalisten aurka
kaleak hartzeko bidea eskeini dute.

Ikasle Sindikatuak deituriko urria-
ren 26ko eta azaroaren 24ko greba eta
mobilizazio masiboek PPren jardue-
neko gobernuak udaran onarturiko
errebalida frankistak atzera bota-
tzea lortu zuten. Garaipen honek 4.
DBHko eta 2. Batxilergoko ikasleek
azterketa bidegabe hauetan titulua
jokatu beharrik ez izatea ekarri du.
Azaroko grebatik egun gutxira gober-
nuak frogatu hauek atzera botatzea ira-
garri behar izan zuen. Garaipen ho-
nek garrantzia handia du, konkretu-
ki erakusten baitu borroka, grebek
eta mobilizazioek balio dutela. Wert
ministroak diseinaturiko errebalida
frankistak aurrera jarraitu izan ba-
lute, horrek irakaskuntzatik milaka
gazte ahalik eta azkarren eta titu-
lazio baxuenarekin kanporatzea su-
posatuko zuen, beren etorkizuna es-
plotazio kapitalista gupidagabeena
izateko. Oraindik ordea, asko dago
lortzeko, LOMCE eta Heziberri, 3+2a

unibertsitatean, eta maila guztietako
murrizketak hor baitaude.

Ikasle Sindikatuak eta Hezkun-
tza Publikoaren aldeko Plataformak
deituriko martxoaren 9ko grebak gol-
pe berri bat suposatu dute eskuina-
ren planentzat. Bete betean joan da
PPren eta bere aliatu diren Ciudadana-
nosen eta PSOEko zuzendaritza golpis-
taren planen aurka. “Hezkuntza itun”
bat saldu nahiean dabilta, betikoa
egiten jarraitzeko: murrizketekin eta
pribatizazioarekin jarraitzea izen be-
rri bat jarritz. Euskal Herrian ere gol-
pe garrantzitsua izan da EAJren eta
PSEren gobernuaren aurka, LOMCEa-
ren aplikazioa Heziberriren izenean,
eta hezkuntza publikoaren murrizke-
ten politika jarraitzeko asmoa baitu-
te. Beste behin gelak hustu ziren ins-
titutuetan %90eko jarraipenarekin eta
%80aren jarraipenarekin unibertsita-
teetan (bereziki garrantzitsua izan ze-
na EHUn) eta kaleak bete ziren Hego
Euskal Herriko lau hiriburuetan eta
estatu mailan 70 hiri baino gehiago-
tan, langile familietako gazteria izanik
eguneko protagonista argiena.

**EAJak eta PSEk hezkuntza
publikoaren erasoekin
jarraitzeko asmoa dute**

Mobilizazio izugarri honen aurrean,
hezkuntza ministroa den Iñigo Men-
dez de Vigo, nahiz Cristina Uriarte
hezkuntza sailburua publikoki irten

ziren grebak hutsalak izan zirela es-
atera. Gezurren artean, Uriartek ai-
patu zuen Eusko Jaurlaritzak “beti”
egon dela LOMCEren aurka eta at-
zera botatzeko edo hori aldatzeko lan
egin duela. Hori esatean ordea, EA-
Jko ordezkariak inoiz ez dute esa-
ten zergatik dauden horren aurka.
Ekintzetan, argi dago beren oposi-
zioak aurpegia garbitzea duela asmo,
gizartearen uko masiboa eragin duen
lege batetatik desbinkulatzen saia-
tuz, eta baita Euskal Herrian mobi-
lizazioa moztzen saiatzeko ere, baina
era berean hezkuntza publikoaren
aurkako neurri guztiak aplikatzeko.
Uriartek berak esan zuen Euskadi
Irratiko elkarrizketa batean “LOM-
CEaren helburu guztiak jada lorturik
zeudela Euskal Herrian eta Hezibe-
rri urrunago doala”. Helburu horie-
kin hezkuntza pribatizatzea esan na-
hi badu, arrazoi du. EAE da, alde as-
korekin, hezkuntza pribatua gehien
eta hobe ordaintzen den erkidegoa,
negozioaren buruan kristau eskola
dagoelarik (EAEn DBH eskeintzen
duten ikastetxeen %43a ikastolak ez
diren ikastetxe pribatuak osatzen du-
te). Edota LOMCEaren politiken oke-
rra aplikatzeko eduki duen presa,
Heziberri “ikasle txarren” ibilbideak
bultzatzen ari baita eta LOMCEk be-
rak baino errebaliden motako azter-
keta gehiago planteatzen baitituan,
LH 3., 4., eta 6.an, DBH 2. eta 4.an,
eta 2. batxillerrean.



EAJ da Hego Eusko Autonomi Er-
kidegoko erasoen arduraduna. Bere
politiken ondorio zuzena dira pribatiz-
atzea, murriztea eta kontzienteki
langile familietako seme alabek goi
mailako ikasketak egitea oztopatzeko
hartzen dituen neurriak. Urte urte
murrizketa basatiak aplikatzen diz-
kio unibertsitate publikoari, geroz eta
diru gehiago oparitzen dien bitartean
Deustuko edo Arrasateko unibertsita-
te pribatuei. Lanbide Hezkuntzako
murrizketek geroz eta ageriago uz-
ten dute ez daudela plaza nahikoa
eskariari aurre egiteko, hori geroz
eta handiagoa denean enpreetan
gazteok pairatzen ditugun kaleratze
eta prekarietatea dela eta. Euskara
erasotzen du. Ez du inolako arazorik
PPren babesteko haur hezkun-
tza euskara murrizteko, eredu lin-
guistikoekin jarraitzeko oinarritzko
hezkuntza, eta bereziki larria den
unibertsitateko euskararen egoerari
axolagabeki begiratzeko.

**Indarrak batu etsai
berberaren aurka**

Martxoaren 22rako LAB, ELA eta
STE-EILAS irakasleen sindikatuek

greba deitu dute hezkuntza publikoan,
langileen kopurua handitu dadin eta
sektorean prekarietatearekin eta be-
hin-behinekotasunarekin amaitu da-
din, geletan ikasleen kopurua %10 jait-
si dadin, etab. Horregatik, finantziarioa
handitzea eskatzen da eta hezkuntza
publikoa garatzea, irakaskuntzaren
merkantilizazioaren aurrean. Baita
Heziberri eta LOMCEa kentzea, eta
eredu linguistikoaren politika gaitzite-
za, euskara defendatzeko murgiltze lin-
guistikoaren eredu bat garatuz.

Erabat babesten ditugu aldarri-
kapen hauek, hezkuntza publikoaren
aldeko borroka aurrera eramateko oi-
narria baitira. Jada urte dezente di-
ra Hego Euskal Herrian eraso oso la-
rri hauek jasaten ditugula Gasteizko
eta Iruñeako gobernuen eskutik. Iza-
teaz, 2017ak PNV-PSEren gobernu-
aren aldetik, politika berberekin jar-
raitzeko plana berretsi besterik ez
du egin. Babestu egiten dugu ELA,
LAB eta STE-EILAS sindikatuek gre-
ba deitzeko harturiko erabakia, lehen
pausoa izan dadin helburuak bete ar-
te gehiagora joango den borroka ba-
teko lehen urrats gisa. Baina aldi be-
rean, esan beharra daukagu borroka
hau eraginkorragoa izango dela aha-

lik eta batasun gehien lortzen badugu.
Borroka lerro nazionaletan zatitzen
saiatzeak, hezkuntzaren eremuan ere,
eskuinari bakarrik egiten dio mese-
de eta bereziki ahultzen du langileen
eta gazteen borroka. Horregatik uste
dugu, eragin guztiz positiboa izango
zuela borroka indartzeko eta erasotu
gaituztenen aurka indartsuago kol-
patzeko bidezko aldarrikapen hauek
Euskal Herrian ere Martxoaren 9an
grebara deituaz defendatu izan balira
erakunde hauen eta Ikasle Abertzale-
learen aldetik. Funtsezkoa da esku-
inaren erasoak jasaten ditugun guz-
tiak borrokan batzea. Horrenbestez,
babestu egiten dugu ELA, LAB eta
STE-EILASek datorren martxoaren
22rako deitu duten greba.

Ikasle Sindikatutik martxoaren
23rako grebara deitzen dugu Hego
Euskal Herrian Ikasle Abertzalearen
deialdira batuz. Egun garrantzitsua
izango da ikasleok gelak hustu eta
kaleak bete ditzagun LOMCE, Hezi-
berri, 3+2 eta murrizketen aurka. Bo-
rrokak aurrera jarraitu behar du eta
hezkuntza komunitate guztia batu,
ikasle, irakasle eta gurasoak elakrre-
kin Euskal Herrian eta estatu mailan.
Borroka da bide bakarra.

ANTOLATU ZAITEZ EZKER IRAULTZAILEAn!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

Ekainaren 26ko hauteskunde on-doren, etengabe izan dira eskuineko gobernua osatzeko saiakerak. Prozesu honen parte da IBEX 35ek antolatu eta Felipe Gonzalezek, Susana Diazek eta "baroiek" areagotu duten PSOEren krisia. Kapitalisten helburua da gobernu berriak murrizketak inposatzen eta gure oinarrizko eskubide demokratikoak zapaltzen jarraitzea, nazionalismo espainiarren bandera altxatuta, eta osasunaren eta hezkuntza publikoaren pribatizazioan, lan erreformetan eta lan prekarietatean sakontzea; eta berdin die Gobernua PSOEko parlamentarien abstentzioarekin lortu den edo hirugarren hauteskundeekin.

Euskal Herriko langile eta gazteok ondo dakigu zer den eskuineko gobernua izatea, bai Madrilen PPrekin, bai EAEn EAJrekin eta bai Nafarroan UPNrekin. Azken urte hauetan gogor jasan ditugu beren politikak eta hauen kontrako mugimendu indartsua eraiki dugu. Hauteskundeetan ere, gure altxamenduak aldaketa handiak ekarri ditu. Podemosen agerrerak edo EH Bilduri emandako babesak erakusten dute gizartea aldatzeko milaka eta milaka gazte eta langileok dugun borrontea. Hala ere, aldaketa hau ez da lortuko parlamentuetako eztaba-detan, ezta hauteskundeetan emaitza bikainak lortuta ere.

Greziako esperientzia oso baliagarria da hau ulertzeko: greziarrek Syriza jarri zuten gobernuan, Troikaren inposizioen aurkako erreferendumean masiboki bozkatu zuten, baina Tsiprasek indar honi guztiari bizkarra eman eta botere ekonomiko handien aurrean makurtu zen. Greziarako balio duenak, Euskal Herriarako eta Estatu espainiarreko ere balio du. Kapitalismoak ez du funtzionatzen zentzu komunaren, logikaren eta gehiengoaren onuragarraren denaren arabera. Enpresari handien eta bankarien interesen arabera funtzionatzen du, beraiek kontrolatzen dituzte Estatua eta botere politikoaren palankak. Inork aukeratu ez duen baina burdinazko eskuarekin agintzen duen elite pribilegiatuarekin hautsi ezean, diskurtso "aurrerakoiena" ere antzu geratzen da.

Mobilizazioa eta programa iraultzailearen defentsa

Eskuina eta bere erasoak garaitzeko bide bakarra daukagu: mobilizazio indartsu eta denboran luzatuko dena eta sufritzen ditugun arazoaren muinera joango den programa defendatzea, hau da, kapitalismoarekin amaituko duen programa iraultzailea.

17. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER IRAULTZAILEA

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Laguniezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.